

EGUZKI ART ZINEMAK urteak daramatza “Ombuaren Itzala” filma gauzatzeko ahaleginetan. Hainbat oztopo eta zailtasunen artean, aurrera goaz proiektuarekin, Pedro Mari Otañok (bizitza eta obra), ahanzturatik aldenduz, geure memoria kolektiboan merezi duen eran txertaturik iraun dezan. Hori da gure nahia, Euskal Herrian zein Argentinan.

Sinestuta gaude proiektua aurrera atera daitekeela euskaldungoaren laguntzari esker. Horrela izan zen Otañoren garaian; berdintsu pasa den mendeko 60ko hamarkadan gertatutako berpizkunde kulturallean; eta halaxe jarraitzen dugu gaur egun ere. Herrigintzan sortzen eta loratzen baitira proiektu bizigarrienak, erakunde eta plataforma handien babesik gabe.

Izan ere, “Ombuaren Itzala”-ren finantziazioa segurtatze aldera egindako lehenengo saioan, herri-oinarri eta oihartzun “mugatuegiko” proiektutzat joa izan zen instantzia haietan. Horrek eraman gaitu filmaren abiapuntua oinarritzakoa den auzolanean kokatzera, Otañok maite izango zukeen bere herri-ekimenaren izaera frogateaz gain, filma egin ahal izateko laguntza ezinago egokia izango litzatekeelako. Euskal Herriatik Argentinaraino zabaldu nahi dugun auzolanaren bidez.

Honetaz gero jada, Otañoren itzalak elkartzen ditu berriro bi lurraldeak. Horrela, bidaide ditugu bertso-munduko jendea, ikastolarena, zenbait kultur-elkartarena... Argentinan ere, hor dugu FEVA, Euskal Etxeen Federakuntza... Lana bada, baina denon artean lortu dezakegu filma amaituta egotea datorren urtean, Otaño hil zela betetzen diren 111. urte simbolikoan.

Azkenik, partaide-laguntzaile izango diren guztiei aldezturik esker ona adieraztearekin batera, azpimarratu aitorpen berezi bat isladatuta geldituko dela filmaren kredituetan, auzolanean bildu partaideak ezinbestekoak baitira, bai filma egin ahal izateko, baita Pedro Mari Otañori legokiokeen herri-ekintzan oinarritua izan dadin ere.

Auzolanaren erronka:

30.000 zine sarrera aurrez saltzea, 10 €-tan sarrerako.

30.000 SARRERA BAIETZ!

Patxi Bisquert

Ama euskerak hau esan zidan
jarririk begi alaiak.
Horregatikan nakar honera
berari lagundu nahiak.
Gutxi nezake, oso txikiak
dira nik dauzkadan gaiak,
bainan pozkiroz egingo ditut
gauak, egun, aste, jaiak;
leku pixka bat Euskal Herrian
eskatzeizuet anaiak.

Auzolaneko partaide izateko:

ES84 3035 0120 9212 0001 4781

Laboral Kutxa



Informazio gehiagorako:

948 38 83 31 - 687 841 313

pmirenabisquert@hotmail.es

Irudia eta diseinua: Txakur Gorria sormen kolektiboa

PELLO MARI OTAÑO,
zizurkildar bertsolariaren aldeko **AUZOLANA**

EGUZKI ART ZINEMA-k aurkezten du:

OMBUAREN ITZALA



“Euskara bizi bada, Otañoren bertsoak ere biziko dira”

Antonio Zavala, S.I.

“Ongi irabazia du letretan daukan lekua. Bertsolaririk handienen artera jaso dago, inoizko handiena ere bada askorentzat; bertsolariek modernotasunaren eredutzat hartu izan dute beti. Xabier Lete edo Josanton Artze bezelako poetek eta kantariak ere haren bertsoak kantatu eta erreztatut zituzten.

Pedro Mari Otaño beti izango da aipagarri gure kulturaren. Merez duen ikusgarritasuna ematera dator filma hau.

Pedro Mari Otaño ez delako bakarrik poeta, Pedro Mari Otaño bere garaiko pertsonaia delako, buru-belarri murgildua bizimodua aurrera ateratzeko abenturan (ferratzaile, irakasle, albaitari, tabernari, kontuzain...), politikaren abenturan (foruzaletasunaren bilakaera islatuz), hitzaren abenturan (bertsoak, abesbatzarako letrak, opera libretoak...), eta nongotasunaren abenturan (joan zen, itzuli zen, joan zen berriz, eta berriz itzuli zen, joan zen hirugarrenez, kantagai hartu zuen Argentina, eta ez zen itzuli”.

Koldo Izagirre



“Figurarik ‘beneratuena’ izatea ez da nik entzun izan dudana zerbaít bakarra, nire bizitza guztian egiaztatu dudana baizik. Bai bertsozaleak, bai bertsolariak, bai, orohar, euskaldunak ere, benerazio horrekin hizketan entzun izan ditut beti Pedro Mari Otaño. Aipatu benerazioa harrigarriago egin zitzaidan gero, bere bizitza ezagutu nuenean. Otaño, ideologiaz, liberala baitzen, kasu bakana eta nahiko harrigarria, haren garaian zebilen bertso tradizioan. Halere, Euskal Herri osoaren itzala irabazi zuen”.

Xabier Amuriza

“...Voy a citar un último lugar transfigurado, mucho mas humilde que los anteriores. Se trata de un caserío de nombre Errekalde, que en lengua vasca significa, literalmente, al lado del río. Fue en su día una construcción bastante pobre, sin mas patrimonio que la de ser cuna de una saga de improvisadores-bertsolariak bastante famosos, entre los que destacaba Pedro Mari Otaño, nacido a mediados del siglo XIX.

...Escribió unos poemas que fueron muy populares en el País Vasco, y que aún se recuerdan. En uno de ellos hace referencia al ombú, un árbol de la pampa argentina. “Nere lagunik maitatuena ombú laztana zu zera, hargatik nator zure kolkora ni malkoak isurtzera...”, es decir, “Tu eres dulce ombú mi amigo mas querido, por eso acudo a ti para derramar mis lágrimas. Tu me llevas hasta el nogal de la casa donde nació. Te recordaré siempre, pero volver a mi tierra vasca es mi deseo, y dejar mis huesos bajo aquel nogal”.

Este caso humilde, el del ombú de Pedro Mari Otaño, ilustra bien cual es el camino de la transfiguración que la mirada poética introduce en la realidad. Estamos, efectivamente, ante un hombre que se ve obligado a emigrar y que, lejos de su tierra natal, acosado por la nostalgia, escribe un poema en el que, dirigiéndose a un árbol, habla de otro. Al difundirse el poema, el nogal de Errekalde —no muy lucido, doy fe— se convierte para muchos en un árbol singular, mas valioso que otros, mas significativo, símbolo de la nostalgia del emigrante.

...Por eso se transforman los lugares. Por eso cobran valor. Porque retienen ideas y pensamientos. Porque retienen vida”.

Bernardo Atxaga, Andaluziako hitzaldi batean.

* Jatorrizko irudiak, *Pedro Mari Otañoren arnasa* liburukoak dira, *Hernandorena Kultur Taldeak* argitaratua.

